



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/09/29) Hurrengo saioa: 2017/10/20	Erretaula	Gidatutako bisiten balorazio positiboa egin da.	Denboraz deialdi bat egiteko beharraz hitz egin da. Honetarako Javier De Miguelekin hitz egin behar da data batzuk adosteko.
	kirol ekimenak	Asteko jarduera taulak osatu dira ekimen bakoitzeko arduradunak izendatu dira. Frontenis: Iker Lizardi Iturriza Zumba: Izaskun Barrenetxea Aldanondo Euskal Dantzak: Pilare Muxika Lopetegi Pilates: Kaetano Iraeta Otamendi Paseo taldea: Joxe Mari Barrenetxea Aldanondo Hileroko mendi irteera: Jaione Sasieta Barrenetxea	Lehen saioetan erabakiak hartu taldeak bikoiztu behar badira, materiala .e.a
	Alegiako frontoiaren ordenantzak	Udal Kirol ekimenak direla-eta eta otsailean Alegiako bilerako proposamenekin Pilotalekuaren araudia berrikustea erabaki da.	Dauden ordenantzak aztertu eta berritzea Alegiako bileran aurkeztu ahal izateko
	Auzolana	Artxiboa herrira ekartzearen beharra ikusita, auzolanean ekartzea egokia litzatekeela erabaki da.	Azaroaren 18an talde baten lana izan liteke



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2017/10/07) Hurrengo saioa: 2017/11/04	Alegiako eta Batzarrerako gai-zerrendak	Deialdia osatu da eta banaketa antolatu	Astean zehar aurkezpenak eta dinamikak prestatu
	Katastroa	GFari katastroa banatzean sortu zaizkion zalantzak bidali ditu eta aztertu dira.	Zuzenketak orain 3 urte egin zirenez, orduan egindakoa bidaliko da
	Frontoiaren ordenantzak	Aurretik zeudenei, Alegiako bileran jasotakoekin eta herritarren jarduera fisikoak lehentasuna izanez, proposamen bat landu da	Alegiako bileran aurkeztuko dira eta adosten joan hainbat atal
	Alegian komun irigarria dutxarekin eta beste txiki bat	Proiektu honek izan duen bilakaera aztertu da eta azken hau egokiena kontsideratzen da batzordean	Alegian jendaurrean aurkeztuko da iritzia jasotzeko
	2018rako diru laguntzen eskaria	Astean honetan irisgarritasun laguntzen epe barruan, Alegiako komunitzat zein frontoiarentzat eskatuko dira, parke berriaren eraikuntzarekin batera gauzatuko baitira.	Eskaera bideratzea aparejadorearen txostenarekin
	Parke berriaren jolas baliabideak	Egokienak 2 elementu jo dira: kastilete osatuena eta 2 ziburu dituena (bat txikientzako saskiarekin eta bestea gabe). Gainerakoak, helduentzat, eserlekuak, mahaia?... jarraian ezartzen joango dira.	Alegiako bileran hau guztia partekatu
	Itsasoko udaletxerako barneko aurreproiektua	GFArako lanean diharduen arkitektoak bidalitakoaren gainean, aldaketak proposatu dira	Arkitektoari igorri. Datorren Herri Batzarrean azaldu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/10/03) Hurrengo saioa: 2017/10/17	Kirol eskaintzaren kobrantza	Ekintza nola kobratuko den erabaki da. Hilabetekoa taldeko arduradunak jasoko du eta honek Udalaren kontuan diru-sarrera egiteko konpromisoa hartu du, kirol ekintza eta hilabetea kontzeptuan jarritz.	Kirol ekintza bakoitzeko, partaideen izenak eta hilabeteak dituen txantiloia sortu, kobrantzaren kontrola eramateko.
	Ostatu azpiko lokalaren erabilera	Balio anitzeko lokala izanik, duen erabileraren ordutegia ikusgai izatea erabakitzen da. Honetaz gain, ate azpiko zirrikitua itxiko duen burletea eta hezetasuna kentzeko gailua jarri eta berogailuetako bat konpondu.	Lokalaren erabilera ordutegian zehaztu. Aipatutako hobekuntzak gauzatu. Lokalaren garbitasunaz arduratuko den norbait kontratatzea landu.
	Alegiko bilera eta Herri Batzarra	Alegiako bilerarako eta Herri Batzarrerako edukiak zerrendatu eta landu dira eta deialdia prestatu da.	Bileren balorazioa eta aktak egin
	Web orria	- UDALA atalean osatutakoari onarpena eman eta osatzeko dauden atalen inguruan falta dena egiteko ardurak banatu (Udal langileak eta betebeharrak/Herri Batzordeetako aktak/ Udal Osoko Bilkuretako deiak eta aktak/Udal zergak eta tasak/ Kontratazioak/Tramiteak).	Aipatutako zereginak osatu eta taldean partekatu.